

KANALAK

Gure zerbitzua aurrera atera dadin ahalik eta pertsona kopuru handienera iristea beharrezkoa dela iruditzen zaigu, izan ere bezeroei esker joango gara handitzen. Horregatik, kanalen erabilera egokia beharrezkoa eta ezinbestekoa dela uste dugu.

Proiektu hau ezagutzera emateko publizitatea ezinbestekoa da eta bezeroengana erraztasunez iristeko sare sozialak erabiliko ditugu, izan ere, azken urteetan eragin handia dute pertsonengan, eta bezeroengana hurbiltzeko sistema aproposa da. Instagram-en eta Facebook-en kontu bat sortuko dugu, bertan, gure zerbitzuak zer eskaintzen duen, informazioa, beharpenak eta abar zintzilikatuko ditugu. Gure zerbitzuaren kontuaren izena @aterkeasy izango da. Horrez gain, Donostiako Facebook-eko profilean (@sansebastian.donostiarra) iragarki bat jartzea pentsatu dugu, hiriko biztanleengana zehazki iristeko.

Gainera, webgune bat eskainiko diegu bezeroei. Bertan, hiru atal bereiziko dira: lehenengo atalean gure informazioa agertuko da, zeintzuk garen, zer egin nahi dugun, zein den gure ideia, nola egingo dugun, non aurkitu dezaketen gure lokala, arazoentzako telefono zenbakia, etab.; bigarren atalean gure zerbitzuaren erabilera eta honen salmenta prezioa argituko dugu. Atal honetan ere, bezeroek gure zerbitzua kontratatuko dute, hau ere aplikazioaren bidez egin ahal da; hirugarrenean aldiz, gure berriak gehitzen joango gara.

Honez gain, Donostiak komunikabide lokal ugari dituela kontuan hartuta, horiez baliatuko gara hiriko bertako jendeari gure proiektuaren berri emateko. Iragarki horietan, gure zerbitzuaren funtzioa azalduko diegu biztanleei eta gure webgunea bisitatzera gonbidatuko ditugu. Horretarako, egokiena Gaztezulo eta teledonosti direla pentsatu dugu, horiek baitira oihartzun handiena dutenak. Bertako "Influencer" eta pertsona famatuekin ere kontaktuan jarriko gara, gure produktua erabiltzeko eskatuz, sare sozialetara igo eta hiriko jendea gure zerbitzua erabiltzera bultzatzeko.

Honekin batera, hiriko kaleetan zehar kartel publizitarioak jarriko ditugu, bisualagoa eta deigarria izan dadin, honen bidez kanpotik etortzen den jendea eta Donostiatik paseo bat ematen dagoen jendeak gure zerbitzuaren berri izango du. Baita markesinetan, izan ere, euria egiten badu, babestera joatea ohikoa den lekua da. Gainera, tren geltokietan MUPI-ak jarriko ditugu jende asko mugitzen baita garraio publikoan eta baliabide aproposa dela uste dugu.

Publizitate esanguratsuena, Donostiako egun berezietan egingo genuke, euria egitea ohikoa den urtarotetan ospatzen direnetan, hain zuzen ere, San Tomas eta San Sebastian egunean. San Tomas egunean, kartel gehiago jarriko genituzke jendea biltzen de guneetan, konstituzio plazan adibidez. San Sebastian egunean berriz, partaide talde bat sortu edo patrozinatuko dugu.

Gure bezeroei hainbat erraztasun emango dizkiegu, uneoro maitatuak senti daitezzen. Lokal bat izango dugu bulego gisa, eta bertan bisitak egin ahal izango dituzte edozein zalantza argitzeko, hala ere, edozein momentuan telefonoz edo korreoz ere jakinarazi ahal dizkigute haien zalantzak edo arazoak. Hau ere posible litzateke guk egindako aplikazioaren bitartez, bertan ez dute gurekin kontaktuan jartzea besterik izango. Aplikazioan bertan, eskuragarri izango dituzte aterkiak alokatzeko aukerak eta sekzio bat eskainiko zaie bezeroei bertan dituzten arazo nahiz zalantzak argitzeko.



Zerbitzua bezeroentzat oso eskuragarria izango da, izan ere, hiriko zenbait kale-argietan jarriko ditugu aterki-puntuak, bakoitzean 5 aterki egongo dira. Huk 6.925 puntu ezberdinetan kokatuta egongo dira Donostiako auzoetan zehar: Amaran, jende gehien bizi den auzoan, 1.500 estruktura jartzea erabaki dugu, Altzan eta Grosen 1.000; eta Intxaurrendon eta zentroan beste 700 estruktura jarriko ditugu bakoitzean; Antiguon eta

Egian 500; eta Aieten 400; Ibaietan, eta Bidebietan 100 aterki puntu; Loiolan eta Ategorrietan 80; Martutenen, Añorgan eta Miramonen 75; eta azkenik Igeldon eta Zubietan 20 bakoitzean. Auzo bakoitzean jarri ditugun puntu kantitatearen arrazoia bakoitzeko biztanle kopurua eta bertan egoten den mugimendua dira, izan ere, auzo batzuetan jende asko bizi harren eguntasunean ez da jende asko egoten bertan.

Gainera, nahiz eta aterkia puntu jakin batetik hartu, beste edozein puntutan uzteko aukera izango da, bezeroentzat ahalik eta erosoena izan dadin.

